

PRENTSA OHARRA: 2025.10.11

‘Linguae Vasconum Primitiae’, euskaraz argitaratutako lehen liburua, ikusgai Baionako Euskal Museoan

- **Frantziako Liburutegi Nazionalarekin eta Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan, Baionako Euskal Museoak gaur arte iritsi den ale bakarra erakutsiko du urtarrilaren 11ra arte**
- **Erakusketa museoaren mendeurrenaren baitan kokatzen da, eta Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurrenaren harira antolatutako jardueren parte da**

Baiona, 2025eko urriaren 11 -. Baionako Euskal Museoaren, BnF Frantziako Liburutegi Nazionalaren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lankidetzari esker, ‘Linguae Vasconum Primitiae’, euskaraz argitaratutako lehendabiziko liburuaren ale bakarra ikusgai egongo da gaurtik hasita urtarrilaren 11ra bitarte. Baionako Euskal Museoak 100 urte bete ditu aurten, eta, urteurrenaren kariatara, euskal literaturaren mugarri den obra eta haren egilearen legatua ekarri ditu lehen lerrora. Halaber, erakusketa Etxepare Euskal Institutuaren 15. urteurrenaren harira antolatutako jardueren artean kokatzen da. Hain zuzen ere, Bernart Etxepare idazleak “euskara, jalgi hadi mundura” leloak iradoki bezala, Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kultura sustatzea, hedatzea eta kanpora proiektatzea du helburu nagusi.

Gauzak horrela, 2026ko urtarrilaren 11ra arte, Bernart Etxeparek euskaraz idatzi eta 1545. urtean Bordelen argitaratutako ‘Linguae Vasconum Primitiae’ liburua Baionako Euskal Museoak hartuko du, Frantziako Liburutegi Nazionalak maileguan utzita. Paristik mailegatutako bildumaren estreinaldia museoan bertan egin da gaur, museoko zuzendari Sabine Cazenavek, Frantziako Liburutegi Nazionaleko liburu arraroen

gordailuko zuzendari Jean-Marc Chatelaine, eta Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larrazak aurkeztuta.

Erakusketaren aurkezpenak euskal ondarearen memoria balioan jartzeko balio izan du. Izan ere, 480 urte dira euskal kulturaren eta euskal literatur historiaren obra aitzindaria estreinakoz Bordelen plazaratu zenetik, François Morpain inprimatzailearen eskutik.

In-4° formatuko 28 orrik osatzen duten Linguae Vasconum Primitiae. Haren itxura xumeak jakitera ematen ez badu ere, paregabeko garrantzia du euskal ondarearen historian. Izan ere, tituluak berak hain argiki iragartzen duen bezala nahiz eta latineraz izan, euskaraz inprimatua izan den lehen liburua da. Lan hori Bernat Etxepareri zor diogu, 1480 inguruan Duzunaritze Sarasketan sortu zen apezari. 1545 argitaratze urte horretan Garaziko haranean den Eiheralarreko erretorea zen, Donibane Garazitik Orreagara doan bidean.

Obra horretan, prosaz idatzitako aitzinsolas labur baten ondotik, debozio olerkiak atzeman daitezke, eta ondoren maitasun profanoei buruzko olerkiak, hauen artean delarik emakumeen laudorioz eginiko bat. Gero, bertsoan idatzirik, Nafarroako Erregearen aginduz espetxeratua izan zeneko kontakizuna dator, espetxeratze horren arrazoiak zehaztu gabe. Eta bukatzeko, bilduma horretako bi idazki ezagunenak, dantza erritmoei jarraikiz bozkarioz goratasuna ospatzen duten bi olerkiak: Kontrapas eta Sautrela. Ez dakigu zenbat aletan atera zen 1545ko argitalpena.

‘Ça colle au basque’, euskal kultura frankofonian

Mendeetan zehar gaurdaino iraun duen euskarazko lehen literatur argitalpenaren erakusketa Baionako euskal museora ekarri izana Etxepare Euskal Institutuak Frantziako Liburutegi Nazionalarekin eta, oro har, frankofoniako kultur eta akademia eremuko eragileekin, garatu duen lankidetzaren esparruaren baitan eman da. Izan ere, ‘Ça colle au basque’ egitasmoa abiapuntu hartuta, Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kultura mintzaira frantseseko komunitatean indartzea du helburu; frantsesa hizkuntza komun duten eta munduko bost kontinentetan dauden 321 milioi pertsonak

osatutako kultura, nortasun eta hizkuntzen mosaikoa. Horrez gain, kultura- eta akademia-elkartrukeak sustatzea eta hizkuntza-aniztasuna batasun printzipio gisa balioestea ere xede ditu egitasmo honek.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus